

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Belate aldeko N-121-A errepideko erreia, Irungo noranzkoan, aste honen amaieran ireki ahal izango da berriz eguraldiak laguntzen badu

*Sustapen Departamentuak hiru hilabeteko epean gertatu diren lur-jausiei behin betiko irtenbidea eman nahi die*

Lunes, 20 de mayo de 2013

### Sustapen

Departamentuak aste honen amaieran aurreikusten du N-121-A errepidearen (Iruña-Behobia) erreia bat irekitzea Belaten eguraldiak azken lur-jausiaren konponketa-lanak egitea eragozten ez badu behintzat, eta gorabehera gehiagorik sortzen ez bada.

Horrenbestez, [iragan larunbatean](#), [maiatzak 18](#), [errepide horretako 27,5 Kp-an izandako azken lur-jausiaren](#) aurreko egoera berrezarriko da, hau da, Behobiarako zirkulazioa Belate eta Almandozko tuneletatik bideratuko da, eta Iruña alderakoa, Belateko mendateko errepidetik (NA-1210).

Bestalde, lur-jausi gertatu den lurpean ikerketa egin ondoren, Sustapen Departamentuak hiru hilabeteko epean gertatu diren lur-jausiei behin betiko irtenbidea eman nahi die.

Lan horien bitartez, hegalean hormigoizko piloteen pantaila bat jarriko da trabaketa-habe batekin eta behealdean eusteko harri-lubeta egingo da material pikortatuarekin beteta. Jarduketa horiek Belateko mendatetik doan NA-1210 errepidea babestuko dute, N-121-A aldera lurra erortzea saihestuko dute eta ezponda egonkortuko.

Une hauetan Kontserbazio Zerbitzuak N-121-A errepidea garbitu du lur-jausia gertatu den parean eta 4,5 metro zabaleko galtzada libre utzi du erreia bat prestatzeko larrialdi-egoeran erabili behar bada ere.

### Lurpean egindako azterketaren emaitza

Sustapen Departamentua N-121-A errepidearen (Iruña-Behobia) 27,7 Kp-an gertatutako lur-jausiaren ikerketa-lanak egiten ari da. Esku-hartze horien emaitza da zonalde horretan faila geologiko bat hauteman dela, aztertutako hareharri eta ofiten egituren artean, inausketari eragiten diona eta lurra mugitzea erraztu duena.

Gainera, eguneroko jarraipenaren ondorioz ikus daiteke



Lur-jausiaren parean egindako lanen irudia.

mugimenduak hegalaren goialdera egiten duela eta pitzadura berriak ikus daitezkeela hegalaren goialdean, aurrera egin nahi duten pitzadurak.

Egoera horren aurrean, ez da komeni behealdean beharrezkoak diren indusketak egitea goialdeko malkarrari eutsi gabe, batez ere kontuan hartzen bada mendateko errepidea (NA-1210) burualdetik doala.

### **Aurreikusitako lanak**

Arrazoi hori dela eta, Sustapen Departamentuak aurreikusitako lanak bi fasetan burutuko dira. Lehenik eta behin, lur-jausiaren goialdeari eutsiko zaio, malkarrak orain arte bezala aurrera egiten jarrai ez dezan. Hori dela eta, lurrari lotutako mikropiloteen pantaila edo errezel bat egikarituko da bi mailatan jarritako bi habe-buloien bidez. Buloiak, egindako zundaketekin ikertutako eta ondo dauden ofitetean murgilduta izango ziren.

Gainera, bigarren fase batean, eroritako masa kenduko da, zabortegei batera garraiatuz, eta haren oinarrian hormigoizko eta harrizko harri bat jarriko da pikortatutako betegarriarekin azalera lehengo egoeran berriz uzteko.